

1/2016 FORU AGINDUA, urtarrilaren 4koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen foru Administrazioarekiko harremanak bide elektronikoz izateko obligazioa arautzen duena.

(2016ko urtarrilaren 11ko GAO)

Indarrean 2017/10/1era arte, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duen 320/2017 Foru Aginduak, ekainaren 28koak, bere Xedapen Indargabetzailean ezartzen duen arabera (2017ko ekainaren 30eko GAO)

OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan.

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Zerga administrazioarekiko harremanak bitarteko elektronikoz egitera behartuta dauden pertsonak eta entitateak.

1. Jarraian aipatzen diren zergapekoek bitarteko elektronikoz egin beharko dituzte zerga arloko tramite eta komunikazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiak <http://www.gipuzkoa.eus/ataria> helbidean duen egoitza elektronikotik abiatuta.

a) Forma juridiko hauek dituzten entitateak:

— Sozietate anonimoak (identifikazio fiskaleko zenbakiaren –IFZren– hasierako letran A duten entitateak);

— Erantzukizun mugatuko sozietateak (IFZren hasierako letra B duten entitateak);

— Aldi baterako enpresa elkarteak (IFZren hasierako letra U duten entitateak);

— IFZren hasierako letra V duten entitateak;

— Sozietate kolektiboak (IFZren hasierako letra C duten entitateak); sozietate komanditarioak (IFZren hasierako letra D duten entitateak); sozietate kooperatiboak (IFZren hasierako letra F duten entitateak);

— Organismo publikoak (IFZren hasierako letra Q duten entitateak), Estatuko eta autonomia erkidegoetako administrazioaren organoak (IFZren hasierako letra S duten entitateak), eta toki korporazioak (IFZren hasierako letra P duten entitateak).

5. artikulua. Nahitaezko komunikazio eta jakinarazpen elektronikoak.

1. Foru agindu honen 1. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren pertsonak eta entitateak behartuta daude Ogasun eta Finantza Departamentuak egiten dituen komunikazio eta jakinarazpenak bide elektronikoz jasotzera egoitza elektronikoan zehaztuko diren prozeduretan.